

KUTXABANK TXARTELEN SUSTAPEN-KANPAINA: “KUTXABANK ESKOLA-ITZULERA 2023”

1.- Definizioa:

KUTXABANK SAK ekintza komertzial bat egingo du Estatu osoan, Kutxabank-ek jaulkitako txartelak sustatzeko; adinez nagusi diren pertsona fisiko guztiek parte hartu ahal izango dute, betiere Kutxabanken bezero izanez gero eta oinarri hauetan finkatutako baldintzak betez gero.

Zozketaren helburuak publizitatea egitea eta sustapena baino ez dira, eta ez dakar ez gainpreziorik, ez tarifikazio gehigarririk parte-hartzaileentzat.

2.- Sustapen honetan sari hauek emango dira:

- 5 sari: horietako bakoitzean **10. Belaunaldiko, Wi-Fi 10,9 haz-bete eta 256GBko Apple iPad bat opari.**

3.- Kanpaina 2023ko irailaren 1etik 2023ko urriaren 15era bitarte izango da, egun biak barne, eta zozketa 2023ko urriaren 24ean egingo da.

Ezinbesteko arrazoiengatik, Kutxabanke zozketa bertan behera utzi ahal izango du eta parte-hartzaileei horren berri eman beharko die.

4.- Sustapen honetan adin nagusiko pertsona fisiko guztiek parte hartu ahal izango dute, betiere Kutxabanken bezero badira eta, zozketaren egunean, honako baldintza hauek guztiak betetzen badituzte:

- Visa Finantza-txartel aktibo baten, gutxienez, titular izatea; jarraian zehazten diren partikularren txartel hauetako bat izan daiteke:

Visa Classic, Visa Oro, Visa Oro Dual, Visa Oro Profesional, Visa Platinum, Visa Dual, Visa Dual Profesional, Visa Dual K26, Visa Dual K26+, Visa Dual 100%, Visa Dual Nagusi, Sticker/Pulsera Dual/Crédito, Visa Nakar, Visa Partaide, Visa Dual R.Sociedad, Visa Debit, Visa Debit Profesional, Visa Debit K26, Visa Debit K26+, Visa Debit 100%, Visa Debit Nagusi, Visa Debit R.Sociedad, Sticker/Pulsera Débito, Visa Extra.

- 2023ko irailaren 1etik 2023ko urriaren 15era arte 150 eurotik gorako zenbateko metatuko erosketak egitea, baliogabetu gabeak, saritutako aukeran adierazitako txartelarekin, parte hartzailea titularra izanik.

- Kutxabanke zozketatik kanpo utzi ahal izango ditu erakundean saldo zordunak mugaeguneratuta dituzten pertsona fisikoak, edo zozketaren egunean kapital-zuriketa prebenitzeko fitxategietan daudenak; eta kanpoan utziko ditu datuak babesteko araudiaren arabera publizitaterik ez jasotzea eskatu dutenak edo komunikazio komertzialak ez bidaltzeko fitxategi komunen batean sartuta daudenak.

- Kutxabankeko langileak sustapen honetatik kanpo geratuko dira.

5.- Parte-hartzaile bakoitzari “aukera” bat emango zaio 4. puntuari aipatutako txartel bakoitzeko, betiere txartelaren zenbateko metatua 150 eurotik gorakoa baldin bada.

“Aukerak” zenbakitu egingo dira, elkarren segidan, 1 zenbakitik hasita.

6.- Baliozkotzat joko dira Kutxabanki fitxategi informatikoak egiteko egunean sare eta erakundeekin informazioa trukatzeko dauden sistemen bitartez jakinarazitako eragiketak.

7.- Zozketa notario aurrean egingo da 2023ko urriaren 24ean edo, egun horretan egitea materialki ezinezkoa bada, beste egun batean.

4. eta 5. oinarrietan aipatutako baldintzak betetzen dituzten txartelekin fitxategi informatiko bat osatuko da, txartel-zenbakiaren arabera ordenatuta eta bezero bakoitzari esleitutako “aukera” kopurua zehaztuta.

8.- Zozketa egiteko, notarioak zenbaki bat aterako du bonbo batetik; bonbo barruan, 1etik hasi eta, 5. oinarrian adierazten denaren arabera, esleitutako azken zenbakira arteko zenbaki guztiak sartuko dira. Zenbaki hori izango da lehen sariduna.

Gainerako saridunak hautatzeko eta, horren ondoren, erreserbakoak zehazteko, atera den zenbakiari honako hau gehituko zaio, prozedura informatikoak erabilia: fitxategian erregistratutako aukera guztien kopurua zati sarien guztizko kopurua (5) egin, eta zatidurari erreserben kopurua (25) gehituko zaio; hau da, zati 30 egingo da, eta ateratzen den zatidura biribildu egingo da, beherantz (dagokion zenbaki osoa, dezimalak kenduta) saridun aukera guztiak osatu arte (hau da, 5 saridun, horrela kalkulaturik) eta horrelako eragiketak eginez erreserbako saridunen aukerak (25) atera arte. Ondorio horietarako, fitxategiaren amaierara iritsiz gero, erregistratutako lehen aukerarekin jarraituko da kalkulua egiten, saridunen (5) eta erreserbako saridunen (25) aukera guztiak osatu arte; erreserbako saridunak atera diren hurrenkeraren arabera ordenatuko dira.

9.- Pertsona bakoitza behin baino ezin da saridun suertatu. Sari bat baino gehiago suertatuz gero aukera bat baino gehiago egokitu izanagatik, saritutako lehen aukerari dagokion saria soilik eskuratu ahal izango du.

10.- Saridunei gutun, telefono nahiz posta elektronikoki bidez edo Kutxabankek egokitzen jotzen duen beste edozein bitartekoren bidez jakinaraziko zaie saria egokitu zaiela. Sustapen honen xede diren sariak ezin izango dira inola ere trukatu, aldatu edo konpentsatu saridunek eskatuta, eta sarien ordean ezin izango da sarien kontrabalia dirutan jaso. Edozein arrazoiengatik ezinezkoa bada saridunei emaitzaren berri ematea zozketa egin eta hamabost eguneko epean, saria erreserbako saridunei esleituko zaie automatikoki, hurrenkeraren arabera.

Saridunak uko egin diezairoke sariari, baina ezin izango dio beste pertsona bati eman. Kasu horretan, zozketan atera den erreserbako hurrengo aukerari eskainiko zaio saria.

11.- Sariak Kutxabankek ekitaldi horretarako egokitzen jotzen duen moduan eta tokian emango zaizkie bezeroei.

12.- Bezero saridunak saria onartzen duela baieztatu beharko du, horretarako sortutako fitxa sinatuta, sariaren jakinarazpena jaso eta segidako 15 egun naturaleko epean.

13.- Sariari uko eginez gero, idatziz jakinarazi beharko da zozketaren emaitza jakinarazteko komunikazioa jaso eta segidako 15 egun naturaleko epean. Bezeroak sariari uko egiten badio, ez du inolako konpentsaziorik jasoko.

14.- Bezeroari jakinarazpena bidali eta, 15 egun naturaleko epea igarota, komunikaziorik jaso ez badugu (ez onartzeko, ez uko egiteko), bezeroak sariari uko egin diola ulertuko da, eta Kutxabankekin eskubidea izango du sariaz baliatzeko.

15.- Zozketan parte hartuz gero, parte-hartzaileen datuak Kutxabanken Informazio Sistemaren sartuko dira partaidetza hori kudeatzeko.

Datu horiek tratatu egingo dira, baina soilik saridunaren izen-abizenak eta/edo irudia erreproduzitu, erabili edo zabaltzeko publizitateko eta/edo sustapeneko edozein jardueratan, edozein bitarteko, euskarri edo formatu erabilita; jarduera horiek ez dute inolako ordainketa edo mozkinik jasotzeko eskubiderik emango, saridunaren edo, hala badagokio, haren legezko ordezkariaren berariazko baimena izanez gero.

Era berean, datu pertsonalen tratamenduekin zerikusia duen eztabaidarik sortuz gero, edozein unetan kontrol-agintaritzan erreklamazioa aurkez daitekeela jakinarazten da, eta datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeke, aurka egiteko, datuen tratamendua mugatzeko, eramangarritasunerako eta datu pertsonalei dagozkien banakako erabaki automatizatuen xede ez izateko eskubideak ere baliatu daitezke. Eskubide horiek baliatu ahal izateko, komunikazio idatzi bat bidali behar da Kutxabanken egoitza sozialera edo info@kutxabank.es helbide elektronikora; kasu batean zein bestean, NANaren kopia bat atxiki behar da. Zure ustez, zure datu pertsonalak ez baditugu arauen arabera tratatu, Datuak Babesteko ordezkariarekin harremanetan jar zaitezke, helbide honetan: dpo@grupokutxabank.com.

16.- Saridunek ordaindu behar izango dituzte kanpaina honetako sarien ondorioz sortzen diren zerga-karga guztiak.

17.- Zozketan parte hartzeko aukera ematen zieten Kutxabank txartelak zozketaren egunean ezeztatuta dituztenak ezin izango dira saridun suertatu.

Saria esleitzeko, ezinbestekoa izango da zozketan parte hartzen duen bezeroak ordainketak eta Kutxabankekin egindako beste edozein eragiketa egunean izatea, eta ezin izango du Kutxabankekin inolako zorrik izan, ezein kontzeptu dela eta.

18.- Sustapen honetan parte hartzeak esan nahi du oinarri hauek berariaz onartzen direla, entitateak sustapenaren mekanika definitzeko ezarritako baldintzei dagokienez eta betiere parte-hartzaileak berariazko baimena ematea eskatzen ez duten baldintzak izanik. Sustapenaren oinarriak bete ez dituzten erabiltzaileak deskalifikatu ahal izango ditu Kutxabankekin.